

SINDIKATUEN ITUNA. Euskal sindikatuek Espainiakoei erantzun diete

ELAk «sindikatuaren arteko harremanez gutxi» dakitela esan die CC00ori eta UGTri

LABek uste du abertzaleek erantzun bikoitza eman beharra dutela

A. Olano - J. Aizarza | DONOSTIA-BILBO

«CCOO eta UGT nazioarteko sailak Euskal Herrian gertatzen ari denaz eta sindikatuaren arteko harremanez oso gutxi dakite egin dituzten adierazpenak ikusita», adierazi dio EGUNKARIARI German Kortabarria ELAko Batzorde Exekutiboko bozeramaileak, Frantziako eta Espainiako sindikatuek herenegun esandakoaren aurrean.

Bi estatu haietako sei sindikatu nagusiek PP-PSOE Ituna izenpetu zuten herenegun, eta bertan deia egin zioten ELAri LABekin «harremanak eteteko» eskatuz, «LABekin dituen harremanak Espainia eta Europa demokratiko batekin bateraezina» direla esanez. Horren aurrean Kortabarria dio «oso erraza» dela «hemengo kontuak nazioarte mailan nahi dituzten bezala kontatzea», eta horrelako jokabideak lehenago ere izan dituztela CC00k eta UGTk.

EAEko CC00k, berriz, bi estatuetako sindikatuek sinatutako itunean ELAren inguruko aipamena gaitzetsi zuen, eta ordezkariak duten sindikatu guztiekin ekinbide bateratua bilatzeko politika mantenduko dutela azaldu. «Errealitatea hori da, baina nazioarteko sailek errealitatearekin zerikusirik ez duen planteamendua egin du-



JOSEBA OLALDE
German Kortabarria, ELAko Batzorde Exekutiboko bozeramailea.

te», esan du Kortabarria EAEko CC00ren jarreraren aurrean.

LABek «PPren lan zikina» egitea leporatu die

LAB sindikatuak ez du ustekabea harrapatu sindikatuek plaza-ratutako adierazpenak. Rafa Diez idazkari nagusiaren hitzetan, CC00 eta UGT «azken urteetan horrelako joko zikina egiten ari dira nazioartean, Madrildo Gobernuak Euskal Herriari buruz zabaltzen duen ikuspegi bera zabaltzen ari dira, PPri lan zikina eginez».

LABek «lotsagarritzat» jo du Euskal Herriko lantegietan eta hainbat aldarrikapen inguruan

bat egindakoan kanpora begira horrelako adierazpenak egitea. Hala ere, Diezek ziurtzat eman du Ipar eta Hego Euskal Herriko sindikatuaren sektore eta kide asko ez daudela ados sinatutakoarekin.

LABek uste du ELAekin batera erantzun bikoitza eman beharra dagoela adierazpen horren aurrean: batetik, nazioarteko sindikatuak Euskal Herriko egoerari buruzko informazioa eman, sindikatu espainiarren «manipulazio estrategia» apurtzeko. Bestetik, gainontzeko euskal sindikatuarekin batera, CC00ren eta UGTren «salaketa generikoari erantzun» beharra dagoela iritzi dio LABek.

BIKTIMAK. Espedientea «konplexua» dela argudiatu du Barne Ministerioak

Muguruzaren senideek eskatu kalte-ordainaz erabakitzeke epea sei hilabete luzatu dute

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Josu Muguruza HBko buru zenaren alargunak eta alabak joan zen urteko ekainean egin zuten kalte-ordaina jasotzeko eskaera Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasuneko Legean oinarrituta. Irailean Barne Ministerio-ko zuzendariordeak iragarri zuen kalte-ordaina ukatzea proposatuko zuela Muguruzaren hilketari ez zela «terrorismo ekin-tza» izan argudiatuz. Iragarpen horren aurrean familiak zenbait

alegazio aurkeztu zituen, gertaerak «terrorismo delitu» gisa argudiatzeko zenbait elementu aurkeztuz.

Geroztik kalte-ordain eskaera ugari erabaki ditu Barne Ministerioak, baina Muguruzaren kasuko ebazpena oraindik ez da iritsi. Aldiz, hilabete honetan bere senideek jakinarazpen bat jaso dute erabakia emateko epea beste sei hilabetez luzatuko dutela esanez. Iñigo Iruin abokatuaren iritziz ez da ohikoa jarritako epean ez erabakitzea.

«Are gutxiago ulertzen da legeak aurreikusten duen urtebeteko epea ekainera arte ez dela agortzen jakinik beste sei hilabetez luzatuko dutela esatea». Bere ustez, «Barne Ministerioa konturatu da gertaera horiek ez zirela terrorismoa izan esateak ez duela euskarririk, are gehiago Estatuko Kontseiluko zenbait idatzietan Alcalakoaren antzerako gertaerak terrorismo gisa hartzen direnean, esaterako Corona de Aragoneko kasua». Erabakia atzeratzeko benetako arrazoiak hori dela iritzi dio Iruinek, eta ez horretaz arduratzen den taldearen lan karga edo «espedientearen konplexutasun juridikoa» idatziak dioen moduan.

Oharra

Gure instalazioetan egin behar ditugun hobekuntza lanak direla-eta, argi indarra eten egingo dugu. Lanak amaitu bezain laster berriro martxan jarriko da zerbitzua.

Martxoaren 31 **HERNANI**
08:00etatik 12:30era

Jauregi Bailara 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 59, 60, 61, 62, 64, 65, 66, 1120.

Martxoaren 31 **IDIAZABAL**
08:30etik 08:45era eta 13:15etik 13:30era

Ursuaran Auzoa 17, 20, 22, 24, 26, 28.

Martxoaren 31 **OIARTZUN**
08:30etik 08:40ra eta 17:00etatik 17:20ra

Baldibar Bidea 1, 5, 7; Oretako Bidea 5, 9, 18; Arizabalo Bidea 1017; Igerobi Bidea 1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 13, 14, 15, 17, 19, 21, 25.

08:40tik 08:50era eta 17:10etik 17:20ra

Mendi Berri Etxadia 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14; Oretako Bidea 7, 14, 16; Arizabalo Bidea 1, 3, 5, 7, 9, 14, 16, 1009; Ganboxa Bidea 1408; Mendi Gain Etxadia 1, 2, 3, 4, 5, 6; Orlegimendi Etxadia 1, 8, 11, 19.

08:50tik 09:00etara eta 17:20tik 17:30era

Mendi Zahar Etxadia 1, 2, 3, 4, 4, 6, 8, 8, 10, 12, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 20.

Apirilaren 1a **LEITZA (Nafarroa)**
08:00etatik 11:00etara

Apirilaren 1a **ELGOIBAR**
08:00etatik 13:00etara

San Migel Bailara 1012; Pedro Muguruza Etorbidea 10, 12, 14, 16, 18, 20, 22, 24, 26, 28, 30, 85; Urruzuno Bailara 1, 13; San Pedro 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18.

Apirilaren 1a **OLABERRIA**
07:45etik 13:30era

Iñauti Poligonoa 2, 4, 6, 14, 15; 1 Nazionala Madril 19, 20.

Apirilaren 1a **IDIAZABAL**
07:45etik 13:30era

Iñauti Poligonoa 4.

Apirilaren 1a **HUITZI (Nafarroa)**
08:00etatik 14:00etara

Santa Engrazia 1, 6, 8, 9, 11, 13, 15, 16, 17, 18, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 28, 29, 30, 32, 33, 36, 39, 40, 42, 43, 44, 46, 47, 48, 54, 60, 62, 64, 66, 72, 74, 78, 1070, 1117, 1225; Huitzi barreiatua 10, 30, 40; Huitzi Geltokia 1, 2, 3.

Apirilaren 1a **ARRASATE**
09:00etatik 14:00etara

Loramendi Kalea 6; Uribarri Auzoa 4, 5, 15, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32.

Apirilaren 2a **PASAI SAN PEDRO**
09:00etatik 11:00etara

Euskadi Etorbidea 45, 47, 49, 51, 53, 55, 61; Terranova 3; Marinos 3.

15:30etik 17:30era

Euskadi Etorbidea 1, 3, 5, 7, 9, 13; Portu Gunea 2, 4; Jaizkibel 4, 6, 8, 10.

Apirilaren 2a **ETXALAR (Nafarroa)**
9:00etatik 12:00etara

Urritzokietak Kalea 27, 28, 30, 31.

Apirilaren 2a **DONOSTIA**
15:30etik 17:30era

Azkuene Kalea 7; Pasi San Pedro 47.

Apirilaren 3a **ARRASATE**
12:00etatik 14:00etara

Makatzena Kalea 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13m 15, 17, 19.

Apirilaren 3a **LESAKA (Nafarroa)**
13:30etik 14:00etara

Banarta Kalea (Alkaiaga) 10, 12; Sastrin (Alkaiaga) 2, 4, 10; Ziobi (Alkaiaga) 3, 11, 13.

Apirilaren 4a **MUTRIKU**
8:30etik 14:40ra

Mijoa Auzoa 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 21, 23, 24; Tranpakale 20; Saturran 6.

Apirilaren 4a **ZUMAIA**
15:00etatik 17:00etara

Erribera Kalea 3, 5, 1007; Txomin Agirre Kalea 1001; Axular Ibiltokia 2, 4, 8, 1001; Eusebio Gurrutxaga 8, 12; Arritokieta 4, 6, 8, 10, 12, 14, 16, 18, 20, 22, 24, 26, 30, 32; Foruen Enparantza 5, 7, 9, 11, 13; Oria 1003; San Jose Kalea 2, 3, 6, 7, 9, 12, 13, 17, 19, 21, 24, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 171; Odieta 3, 5, 7, 9.

Gure bezeroei eragozpenak barkatzeko eskatu nahi dizuegu. Mila esker zuen laguntzagatik

IBERDROLA